



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: KANTUA

2022-02-16

Nori zuzenduak?

Graduko Kantu interpretazio ikasketak Musikenen egiteko interesa duten ikasleei zuzendua.

Sarrera probak 2022-2023 edo 2023-2024 ikasturteetan egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikenek jasotako izen-emate kopuruaren arabera onarpen eskubidea gordeko du.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2022ko otsailaren 10ean** amaituko da.

Jardunaldiaren helburua

Kantu interpretazioan Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezaqutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

ARRUABARRENA, Maite

Itziar Barredo irakasleak ere parte hartuko du.

9:30 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikenek** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua ere egingo zaio

10:30-12:15 Maite Arruabarrena eta Itziar Barredo irakasleekin lan saioa jardunaldian izena eman duten ikasle aktiboentzat

12:30-15:30 Musikeneko ikasleekin lan saioa – entzunaldia

15:30 Jardunaldiaren amaiera

Kantu jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan José Antonio Candaudap Teklatu eta Kantu Departamentuko buruarekin: jcandaudap@musikene.eus